



## 1. Haur Literaturaren Txokoa

Hilabete honetan beste hiru liburu proposatzen dizkizuegu, haiekin gozatu eta literatur curriculum osatzeko aukerak eskainiz. Nola osatzen den curriculum hori? Bada, kontakizunekin zein ilustrazioekin gozatuz; irakurketaren eta ahozkotasanaren erritmoa gureganatuz; kontakizunak eskaintzen dizkigun hausnarketa puntuak edota dibertitzeko aukera guztiekin gozatuz. Gainera, ez dago gaizki, jakitea, adibidez, liburuaren azalean zer agertzen den, liburu hori ipuin bat, poema bilduma bat edota bestelako gauzak adierazteko liburu bat ote den... Hona hilabete honetako aukera:

1. [Bainura!](#) (Taro Gomi. Pamiela Kalandraka, 2011)
2. [Pazkoko txitatxoa.](#) (Géraldine Elschner/Alexandra Junge. Alberdania, 2005)
3. [Goazen!](#) (Charlotte Dematons. Ttartalo, 2007)

## 2. Hausnarketa gunea: tradiziozko haur literatura

Vladimir Proppen hitzetan: "Gizakiak entzuten dituen besteen botsak, bere baitan gorde eta eraikitzen ditu. Kantuan hasten da orduan, edota kontari." Tradiziozko haur poesiak eta kantuek haurrari bere neurria, eta hizkuntzaren neurria, mendez mende sortutako egiturak eskaintzen dizkiote. Juan Kruz Igerabidek [EHUko Udako Ikastaroetan, Tradiziozko literaturaren garrantzia haurren literatura-curriculumean. Euskararen altxorak eta gabeziak](#), idatzi zuen hausnarketa ekarri digu gaur gurera. Tradizioa ondo ezagutu eta aztertu du Igerabidek. Bere azken lanak *Eguberria*, neguko solstizioaren azterketa sakon bat eskaintzen digu. Haren aurkezpenerako Itziar Zubizarretak idatzi zuen [Hasieran erritmoa zen](#) izeneko testuak haurrak hizkuntzarekin duen zentzumenezko lotura ilustratzen du.

## 3. Ongi pasatzeko!

Ezagutzen duzu koloretako elefanterik? Ez duzu [Elmer](#) ezagutzen?

*Elmer* alaia, atsegina eta gozoa da, inozoa, txantxazalea, dibertigarria. Umoretsua eta baikorra, zorionsua eta zoragarria da, baina bere inguruko elefanteengandik desberdina. Kolore bizi eta desberdinez osatutako azala du *Elmerrek*. Eta zenbaitetan besteen txantxekin gogaituta, berak ere kolore grisekoa izan nahiko luke, besteak bezalako. Baina *Elmer* bakarra eta errepika-ezina da. Gutako bakoitza bezala.

*Elmer* hamaika hizkuntzatarara itzuli da. Euskaraz, ordea, argitaragabea zen Galtzagorri Elkartek [KLIS-KLASIKOAK](#) bildumaren baitan argitaratzea erabaki duen arte. Bilduma honen helburua Haur eta Gazte Literaturako klasikoak euskal haurrengandik eta gazteengandik gertuago jartzea izanik, *Elmerrek* ere bere lekua behar zuela argi zuen Elkartek. Hori dela eta, 2012an *Elmerren* lehen liburua (Londres, 1989. David McKee) Aiora Jakak ingelesetik itzulia, argitara emateko apustua egin du Erein, Alberdania eta Igela argitaletxeekin elkarlanean, Eusko Jaurlaritzako Kultura saileko Hizkuntza Politikarako sailburuordetzaren laguntzarekin.

Kolore anitzeko elefante honek era askotako lanketak eta irakurketak sortu ditu mundu zabalean. Liburuak eta pertsonaiak berak izan duten arrakastaren lekuko dira denak eta [hemen](#) duzue sarean dauden horietako zenbait ikusteko aukera.

Zuen gozamenerako izango delakoan...